



Arartekoaren 2014R-1903-13 ebazpena 2014ko martxoaren 31koa. Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio kexagilea erroldatu dezala benetan bizi den helbidean.

Aurrekariak

1. (...) -k eta (...) -k kexa aurkeztu zuten erakunde honetan, Sestaoko Udalak uko egin ziolako (...) jauna biztanleen erroldan data emateari.

Pertsona horrek planteatu digunez, (...) jauna udal bulegoetan agertu zen, bizi diren etxebizitzaren jabearekin batera, etxebizitza hori alokatzen baitie, bertan benetan bizi direla frogatzeko; hori frogatu arren, 2013ko otsailean Sestaoko Udalak (...) jauna erroldatzeari uko egin zion. Udalak ez zion inolako arrazoirik eman erroldatzeari ezezkoa emateko.

2. Kexaren edukia ikusita, Sestaoko Udalari informazioa eskatu diogu Udalaren jokabidea eta arlo horretan indarrean dagoen legedia alderatzeko.
3. Errekerimendua eta ohartarazpena izapidetu diren arren, Sestaoko Udalak ez die erantzun kasu horri buruz egin dizkiogun informazio-eskariei.

Aurrekari horiek ikusita eta kexaren xedea udalaren jarrerarekin alderatu ezin izan dugun arren, ebazpen hau egitea egokitzat jo dugu, gogoeta hauek ginez:

Gogoetak

1. Gaia sakonki aztertu baino lehen, salatu behar dugu Sestaoko Udalak ez diola ezertarako ere lagundu erakunde honi, eta jokabide horrek urratu egiten duela xehapen, agiri, argibide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz emateko betebeharrak (Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua). Laburbilduta, aurrekarietan azaldu dugunarekin bat etorriz, udalak ez ditu bete erakunde honekin bete behar dituen betebeharrak.
2. 2013ko irailaren 6an¹ eta 2013ko azaroaren 21ean² biztanleen erroldari buruz eman genituen gomendioetan, Sestaoko Udalari zera azaldu diogu: Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatzen duenez, Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da (16.1 artikulua). Beste alde batetik, 17.2 artikulua xedatzen duenez, *"Udalek beren erroldak eguneratuta mantentzeko*

1 Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpena. Horren bidez Sestaoko UdalarArartekoaren Udalari gomendatzen zaio erroldari lotutako hainbat praktika legezkotasunera egoki ditzan.

2 Arartekoaren 2013ko azaroareArartekoaren azaroaren 21eko ebazpena. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio kexagilea eta haren familia bizi diren helbidean errolda ditzan.





beharrezko jardute eta eragiketak egingo dituzte, erroldan jasotako zehaztasunak errealitatearekin bat etor daitezten.

Hortaz, Udalaren ardurapeko administrazio-erregistroa da errolda, eta udalerrian benetan bizi diren pertsona guztiak inskribatzea da erroldaren xedea. Ildo horretan, azpimarratu behar dugu udalek auzi horretan esku hartzeko dauzkaten mekanismoen helburu bakarra erregistro horretan udalerrri batek benetan dauzkan biztanleak ager daitezela lortzea izan behar da.

Hori da udalek esku hartzeko testuingurua, alegia, ez da bidezkoa biztanleen erroldak duen xede bakarrari –pertsona bat bizileku jakin batean bizi den edo ez zehaztu- erantzuna emateko egokiak ez diren baldintzak eskatzea.

Hala, Tokiko Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 59.2 artikulua –BLMA- (ekainaren 11ko 1690/1986 ED) xedatzen duen egiaztapen ahalmenak udala ez du gaitzen bizilekuaren errealitatea egiaztatzean ez dautzan baldintzak egiaztatu eta eskatzeko edo, bestela esanda, agindutako eginkizunen gehiegikeria baten aurrean egongo ginateke, udal jarduerak pertsona baten benetako bizilekua egiaztatu behar ez duenean.

EINen 1997ko uztailaren 4ko ebazpenak³ kontu hori argitzen du honako hau xedatzerakoan (3. artikulua):

“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo es, por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponder al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.

En consonancia con este objetivo, la norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: «Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad».

3. Kexan planteatzen den kasu zehatzean, aurrekarietan azaldu dugun bezala, pertsona horiek diotenez, Udaletxera jo zuten, erreklamaziogileetako bat lehendik bizi zen etxebizitzan bere laguna erroldatu zezaten. Izapide hori egiteko, haiekin higiezinaren jabea agertu zen, berak alokatu baitzien etxebizitza. Ahoz esan zieten ezin zutela erroldatu, baina ezezkoa emateko ez zieten arrazoirik eman.

Aurreko paragrafoan aipatu dugun egiaztapen ahalmenak Udalari gaitasuna ematen dio bizilagunek emandako datuak egiazkoak diren egiaztatzeko, eta

³ Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko ebazpena argitaratzea xedatzen duen Idazkaritzaordearen 1997ko uztailaren 21eko ebazpena, 1997/07/25eko 177. BOE. Horren bidez, udalei udaleko erroldan jarduteari buruzko jarraibide teknikoak eman zaizkie.





etxebizitza okupatzeko legitimotasuna ematen duten titulua eska dezake horretarako. Kasu honetan, erreklamaziogileak etxebizitzaren errentatzailearekin agertu ziren Udaletxean. Hortaz, ez zegoen arrazoirik biztanleen erroldan alta emateari uko egiteko.

Nolanahi ere, udalak zalantzarik badauka erroldatzeko eskatu zuen pertsona hizpide den helbidean benetan bizi ote den, administrazio-espeditate egokia izapidetu behar zukeen, hori egiaztatzeko eta behar bezala arrazoitutako ebazpena emateko; horrez gain, interesdunari entzunaldi-izapide egokia eman beharko ziokeen, bere eskubideak babesteko egokitzat jo ahal zituzkeen alegazioak aurkeztu ahal izan zitzan.

Administrazio-prozedurak betetzen duen zeregina ez da zeregin instrumental hutsa, administrazio-ebazpen egokiaren oinarri eta funts gisa; aitzitik, prozedura osatzen duen izapide bakoitza interesdunaren eskubide subjektiboa da, eta Administrazioak izapide horietako bat betetzeari uzten dion bakoitzean eskubide hori urratzen da. Horrenbestez, garrantzitsua da zorrotz jokatzeari administrazio-prozeduran aurreikusitako izapide guztiak betetzean.

Laburbilduta, eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, ondorioa hau da: erreklamaziogilea erroldatzeari “de facto” egin zaio uko, izapide egokien edo ebazpen arrazoituen babesik gabe. Jokabide horrek ondorio larriak dakartza eragindako pertsonarentzat, erroldatzea ezinbesteko baldintza baita **oinarrizko zerbitzu publikoak –osasuna, gizarte zerbitzuak eta etxebizitza, adibidez– eskuratzeko.**

Horrenbestez, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

GOMENDIOA

Sestaoko Udalak indarrean dagoen araudia bete behar du, eta horrenbestez, ahalik eta lasterren, (...) erroldatu behar du bizi den helbidean.

